



Oskorrik jarriko ditu kantari azokako eztarriak

Baserriaren altxorrik ikusi eta gozatu ondoren, musikak jarriko dio azokari bukaera alaia, baina ez egunari; hamaika izango baitira, azoka bukatutakotan, jai giroan jarraituko dutenak. Santo Tomas azoka festa giroan amai dadin, Oskorri & The Pub Ibiltariak du horretarako erantzukizuna. Areatzakoa kaia izango da Oskorri taldearen doinuaren lekuko, eta taldearen inguruan batuko diren milaka sama gogotsuren entzule. Arratsaldeko zazpitan dago jarrita hitzordua, eta kontzerturako 18 kantaz osaturiko saioa presatu dute Oskorrikoek.

Goizean barazki eta landareen freskotatzen artean ibili ondoren, gazta, ogi eta pastelak probatu eta gero, eztarriak

eztiaz leunduz edo txakolin eta sagardoaren zapore garratzaz bustita... ahotsa berotzeko beta ere badago santotomasean. Zazpigarren urtez jarraian, azokarekin bat egingo du Oskorri taldeak, eta aurreko urteetako parte-hartze bikaina espero dute.

Azokak eskatzen duen legez, Oskorrik ere jendearen parte-hartzea bilatzen du, guztien artean 18 euskal kanta abesteko. Izan ere, kontzertuko entzule bakarra Hareatzako

kaia izango da, kontzertura hurreratu diren guztiak jarriko baitira, ziurrenik, kantari.

」 」 」 」 」
*Oskorri taldekoek
eta herritarrek,
guztien artean,
18 abesti kantatuko
dituzte*

Kanta ezagun eta ez hain ezagunak batzen dira 18 abesten osotasunean. Ezagunen artean *Eperra*; Bilintxen *Ja-Jai (Behin batian Loiolan)*; *Lau aeroplano pasata (Egixe da)* edota Boga-boga abestiak daude. Honez gain, hain ezagunak ez direnak ikasteko eta ezagutzeko ala gogoratzeko aukera ere eskainiko du Oskorrik; horra

hor horietako batzuk: *Miru zuria, Lurraren pean* edota *Gerlako klopak*. Luis XIV.

Azken sei urteetan, aurretik parte-hartzaileekin entseatu izan dute Oskorrikoek, eta kontzertu borobila izan da emaitza. Zazpigarren honetan, ez dute gutxiagorik espero. Halaber, aurreko urteetan, ekitaldirako jarritako karpa txiki geratu zen, eta, aurten ere, azkar ibili beharko du lekua gorde gura duenak.

Beraz, egunean zehar azokan begiak, sabela eta eztarriak ezitu ondoren, belarriak eta gorputza dantzan jartzeko momentua da arratsalde partea, Oskorriekin. Esan legez, Areatzakoa kaian, 19:00etan, musikak hartuko die baserritarrei lekukoa.